

AOUT 2011

Aiherra

Herria du 11 aout 11

Herriko kontseilua

Herriko kontseilua, astearte arratsean bildu da gai hauen aipatzeko :

- Elizatea edo herri erdiaren arra antolaketa – okindegi-ostatu baten eraikuntza eta toki publikoen tratatzea ; aitzin-programaren adostea eta kudeatzailearen hautaketa

- Argi indarraren sarearen haunditzea Etxexuri deitu bidean

- Gai ezberdinak.

Ondoko astetan, ukanen duzue bildumaren berri.

Antzuolarateko gonbita

Urte guziz 2 herrien arteko adixkidantza, han edo hemen aldizka egun bat antolatuz ospatzen baita, manera guzien arabera aurten Antzuolakoek dituzte Aihertarrak errezebitzen. Elgarretaratze egun hori irailaren 18an finkatua dute oraiko ustez. Xehetasunak berantxago.

Sortze

Iragan maiatzaren 23an, beren lehen haurñoari ongi etorri egin diote Bide Xolan-eko Myriam Ortiz eta Cedric Noblia andere jaunek. Andoni Ellande izendatu dute seme sortu berria.

Beranta pixka batekin jakinarazten badautzuegu ere, ongi etorri Andoni Ellande Noblia sortu berriari, eta goresmenak aitama uroseri !

Erketa auzogunearen besta ondotik

Iragan ibiakoitzean zortzi iragan dira Erketako pestak. Usaian bezala zikiro on bat jastatuz bildu dira, ihiztarien kaiolan, 55 bat auzo heldu, horien gainera hurreria juntatu delarik. Deuseren eskasik ez zuten, musika tresneria ere muntatua baitzuten giroaren alaitzeko.

Biba zuek, eta segi luzaz !